



Immigrazioa eta nazioari buruzko oharra



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO IRAKASLEA

Migrazioez pentsatzen hasten bagara, lehenengo konstatazioa da, gaia nazioaren aferarekin lotu baino lehen, urgentziatzko beste hainbat puntu egon badaudela; esaterako, migratzaileek, oro har, gurean pairatzen dituzten esplotazio egoerak, edota gaiak mundu mailako zapalkuntza harremanekin duen lotura. Hori argituta, bada, immigrazioa eta nazioa lotu nahi nituzke gaurkoan.

Maila analitikoan nahi bada, migrazioak eremu ezin hobea dira nazionalismoak aztertzeko. Nolabait, estatuaren eta nazioaren arteko lotura problematizatzen du immigrazioak; edo, nahiago bada, nazionalismoek haien nazioa pentsatzerako garaian erabiltzen dituzten oinarriak agerian jartzen dizkigute: nor da nazioko kidea, nor pentsatu da historian zehar naziokide gisa, nor kanporatu da irudikapen horretatik, eta abar. Hau guztia bide eta baliabide desberdinak erabiliz gertatzen da aztergai dugun nazionalismoak estatua izan edo ez. Baina, bi kasuetan, immigrazioa azterketa eremu emankorra da. Pierre Bourdieu gogorarazi bezala, migratzailea kokapen sozial berezian aurkitzen da, ez guztiz kanpoan, ez guztiz barruan; bertakotasunaren eta bestetasunaren artean, askotan.

Gaia Euskal Herrira ekarrita, espainiar eta frantziar nazionalismoen jarduna ikusezin gertatzen da arlo honetan,

Erronka da gaiari buruzko diskurtso irekia sortzeaz batera, ikuspegi teoriko horiek praktika eraginkorrekin osatzea

ziurrenik langintza hori naturalizaturik gertatzen delako. Abertzaletasunaren posizioa, ordea, beste bat da, askotan estigma batetik abiatzen baita: euskal nazionalismoak, sorreratik bertatik, migratzaileei itxitako nazio egitasmo bat sortu omen zuen –ñabardura asko egin daitezke hemen–, eta batzuk hori azpimarratzera mugatzen dira, helburu politiko argiekin, lan akademikoaren edota ikus-entzunezko produktuen bidez. Aitzitik, nire ustez, ez bairik gabe abertzaletasunaren bilakaera da azpimarratu beharrekoa; hau da, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan gertatutako aldaketa, ezkerreko abertzaletasunaren aldetik hasiera batean, eta euskal nazio egitasmoa, teoriarik nahiz praktikan, garai hartan hain ugaria zen immigrazioari ateak ireki zizkiona.

Azken hamabost urteotan, Hego Euskal Herrian bereziki, immigrazioaren errealitatea asko aldatu da, eta bestelako jatorriak nabarmentzen dira. Migratzaile berri gehienek ez dute bertan ofiziala den herritartasunik, eta horrek funtsezko desberdintasuna dakar aurreko migrazio prozesuekiko. Baina, hala eta guztiz ere, aurreko migrazio aldiei emandako erantzunak erreferentzia garrantzitsua izan behar duela uste dut. Abertzaletasunak bere nazio egitasmoa berritu zuen, eta proiektu berri hori migratzaileei ere ireki zien. Bestela izan zitekeen, baina hala gertatu zen; eta nazioa eta immigrazioa gaur egun pentsatzeko abiapuntu ezin hobea da, idealizazioetan erori gabe.

Eunice Romero politologoak Kataluniako prozesuari buruz azpimarratzen duen bezala (*Talaia* aldizkaria, 10. zenbakia), migrazioez hitz egitea nazioaz aritzea ere bada, eta erronka da gaiari buruzko diskurtso irekia sortzeaz batera, ikuspegi teoriko horiek praktika eraginkorrekin osatzea. Euskal Herrian immigrazioaz pentsatzen dugunean nazioaren aldagaia ere kontuan hartu beharko litzatekeela uste dut. Beti ere nazioaren definizio ireki batean sakonduz, eta, aldi berean, nazioari buruzko hausnarketa hizkuntzari buruzkora mugatu gabe, Euskal Herrian askotan egiten dugun bezala. Bide horretan orain dela 50 urte egindakoak altxor bat direla uste dut. ●